

IRIZPENA 21/14

Maite Alonso, presidentea
Josu Badiola
Begoña Cabria
Ainara Ibañez
Aitor Idigoras
Mari Tere Ojanguren
Aitziber Oliban
Idoia Pujana
Lourdes Villardón
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2021eko abenduaren 15eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **irakats arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntz gaitasunen eskakizunak ezartzen dituen Dekretu proiektua bigarren aldiz aldatzen duen dekretuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren bidez atzerriko hizkuntzen titulu eta ziurtagiriak aitortzen dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunaren betekizunak ezartzen dira.

Dekretu horren eranskin bakarrean hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuko B2, C1 eta C2 mailetako titulu eta ziurtagiriak jasotzen dira, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan gaiak edo ikasgaiak emateko behar den hizkuntza-gaitasuna frogatzen dituztenak.

Baina titulu eta izendapen berriak agertu direnez, eranskina eguneratu behar da, horien titularren eskubideak zaintze aldera.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek artikulua bakarra eta azken xedapen bat ditu.

Artikulu bakarrak maiatzaren 3ko 73/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzea ezartzen du arauaren xede gisa. Eranskin horrek arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunaren eskakizunak ezartzen ditu.

Eranskinean Marko Komuneko B2, C1 eta C2 mailako titulazioak, akreditazioak eta ziurtagiriak jasotzen baidu, ingelesez, frantsesez eta alemanez irakasgaiak edo arloak emateko.

Azken Xedapenak dio araua indarrean sartuko dela EHAAAn argitaratzen den egunetik aurrera.

III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak 73/2012 Dekretua aztertu zuen 11/10 Irizpenean eta balorazio orokor positiboa egin zion. Gainera, aipatu eranskinaren lehen aldaketaren berri eman zuen 19/04 Irizpenean.

Berriro, aldaketak I. eranskinean bakarrik du eragina, ingeleseko ziurtagiri berriak erantsi direlarik. Hobekuntza tekniko gisa, proposatzen dugu tituluen eta ziurtagirien izendapen osoak zehaztea, kasu batzuetan jaso egiten baitira eta beste batzuetan ez.

Kontseiluak ez dio eragozpenik jartzen proposatzen den aldaketari, ulertzen baitu ziurtagiri berriak sartzeak aukera eman dezakeela arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzetan emateko, irakasle akreditatu gehiago izateko

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2021eko abenduaren 15ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURU JAUNA